

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Cossiga lehendakari

Jone Agirre • DONOSTIA

Francesco Cossiga Italiako presidente ohia izan da Euskal Herrian egunotan. Bixia da Cossigaren eta Ibarretxe lehendakariaren jarreraren konparaketaren ondorioa. Ibarretxe ez du Otegi hartu nahi politikaz hitz egiteko, ETAren biolentzia gaitzesten ez duen bitartean. Cossigak, aldiz, hartzen du Otegi.

Gauzak horrela, nik nahiago dut Cossiga lehendakari Ibarretxe baino. Zergatik ez du EAJk Cossiga aurkeztzen hurrengo hauteskundeetan zerrendaburu? Gatazkaren konponketa gertuago ikusten dut nik Cossigarekin Ibarretxerekin baino.

Azkenaldi honetan Europar modan jarri da trukaketak egitea ikasleen artean (Erasmus programa), enpresari gazteen artean... Zergatik ez dugu horixe bera egin Ibarretxe eta Cossigarekin? Cossiga Euskal Herrira ekartzea eta Ibarretxe Italiara bidaltzea proposatzen dut. Italiarrak beti pazientzia handiko jendea izan dira.

Zergatik joango garen larunbateko manifestaziora

Joseba Aginagalde, Maria Jesus Agirre, Nerea Antia, Paulino Corcuera, Alfredo de Miguel, Alvaro Olabarria eta Miguel Angel Redondo (EAJ-PNVko alderdikide arabarrak)

Egitasmo guztiak, ideia guztiak, pertsona guztiak. Ilegalizaziorik ez lemapean, ekainaren 15ean konbokatutako manifestazioa dela eta, behean izenpetzen dugunok, EAJ-PNVko alderdikide arabarrak garen aldetik, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Guztiz bat gatoz EAJ-PNVko Euzkadi Buru Batzarrek manifestazioaren inguruan

egin dituen hausnarketekin. Ondorioz, guztiz bat gatoz aipatutako manifestazioaren zergati, ekimen eta esloganarekin, haien osotasunean. Era berean, azaldu nahi dugu, gure ustez, Alderdi Politikoak arautzeko Lege Organikoaren Egitasmo berria, eraso zuzena dela demokrazia-funtzionamenduaren oinarritzko printzipioetarako; hala nola, aukera politikoaren askatasunerako eta hauteskundeetan iritzia emateko askatasunerako.

2. Gure aburuz, Alderdi Politikoak arautzeko Lege Organikoaren Egitasmo berria, Estatu espainiarraren eraso berria da, Euskal hiritar gehienek borondatearen aurkako; hau da, Legebiltzarrean dituzten or-

dezkarren bidez eta inkestetan azaltzen denaren aurkakoa. Halaber, gure Herriak sufritzen duen normalizazio- eta bake-arazoa konpondu gabe, gure gizartearen desestabilizazioa sustatuko duelakoan gaude.

3. Lege-Egitasmo berriak bizikidetzaren haustearren arriskua dakarrenez, euskal gizartearen erantzun erabatekoa exijitzen du. Testuinguru horretan, plataforma anitz batek deituriko manifestazioa, erantzun hori bultzatzen duen ekimen egokia dela uste dugu.

4. Horregatik guztiagatik, geure askatasuna erabiliz, gure parte hartuko dugu hurrengo larunbateko manifestazioan. Eta ez dugu egingo formazio politiko zehatzik de-

fendatzeko, demokraziaren oinarri diren eskubide eta askatasunak defendatzeko baizik. Hori dela eta, EAJ-PNVko alderdikide eta jarraitzaile arabar guztiak animatzen ditugu, helburu berberarekin Bilbora joan daitezen.

Iruñeko Udalari egin kritikekin ados

Roman Garmendia • DONOSTIA

Udazken honetan Escriba de Balaguer kanonizatzea doa Aita Santua. Erabaki hori, fededun katolikoontzat, Espiritu Santuarengandik dator, hots jakintza unibertsal batetik. Baina Yolanda Barcinaren politika, zientzia politikoa, ez da inondik inora halako jakintza motatik garatu, jakintza humano da, eta beraz, errebisagarria eta hobegarria (jainkoari eskerrak), eta modu ofizialean erabakitzea, eta ez modu pribatuan, Escribaren kanonizatzea joatea harrokeria itzela da, hori lotu nahi izatea da norberaren zientzia humanoa (oraingoan politika) jakintza unibertsalarekin, misterio santua zaigun jakintza unibertsalarekin. Eta ez da harrokeria bakarrik, bekakua, errorea ere bada, eta oso handia (bekakua eta errorea sinonimioak direla esan daiteke, sinonimo perfekturik ez badago ere, baina zenbateraino dauden lotuta Jesusek argitzen digu, gogora dezagun gurutzear zer eskatu zion Aitari: barka iezaezue, ez baitakite zer egiten duten).

Gogoratu behar da ezen Jesus etorri zela mundu honetara gauzak zorrotz bereizte- ra. Guk gure ezagutza mugak ditugula zehazki deskubritzea gure ezagutza aurre- rapen ikaragarria da, zoragarria ere bada, eta Jesusen mezua gonbidapena da saiatu gaitzen, lan egin dezagun, ongiari buruz mundu honetan ere, mezu santua da, beraz. Ez da inondik inora kontradiktorioa.

irrimarra



galdeiozu... ?



JON MAIA

Euskal Herriko aurrekulari txapelduna

Urteak daramatzazu euskal dantzaren munduan. Nolako diagnosia egingo zenuke egungo egoeraz?

Maidar Zabaleta (Hernani)

Dantza, arte moduan, eta euskal dantza, kaleko kultur adierazpide den aldetik, apur bat despres- tiatuta daudela uste dut. Jende gehiegik ikus- ten du bigarren mailako zerbait balira bezala. Hori aldatzeko gauza askori eman behar diegula bira. Dantzariok, adibidez, saioak tentu handiz, mimoz zaindu beharko genituzke, gure jarduna erakargarri bihurtu... Gauza txukunak egitean jendeak ere badaki estimatzen.

hirusta

Kirmen Uribe



Ate bi

Kondenatua zain dago ziegan. Urka- mendira dago kondenatua. Ordu bat- zuk baino ez dira falta goizalbarako. Ezustean ziegako atea zabalik aurkitu du. Ar- tega, ziegatik atera da kondenatua. Halako batean, aukeratzera eman diote. Bi ate ditu parez pare. Ate batek aske utziko du, libre. Besteak heriotzera eramango du.

Ate bakoitzean zaindaria bat dago. Zaindaria batek beti egia esaten du, besteak gezurra. Baina kondenatuak ez daki zein den salbatu- ko duen atea, ez daki zein zaindaria dioen egia eta zeinek gezurra. Gainera, galdera ba- kar bat egin dezake soilik, behin bakarrik egin diezaioke itauna zaindariatako bati. Zein da bada egin beharreko galdera zuzena?

Asmakizunaren erantzuna honako hau- xe da: onik ateratzeko, kondenatuak zaindaria- tako bati galdetu behar dio zein den, beste

zaindariaren ustetan, salbatuko duen (ala ur- kamendira eramango duen) atea. Gero, zain- dariak seinatu duen atea ez, kontrakoa hau- tatu behar du. Izan ere, egia esaten duen zain- dariari galdetuz gero, honek, bestea gezurretan ari dela pentsaturik, kontrako atea seinatuko dio. Gezurra dioen zaindariari galdetuz gero, oster, argi dago urkamendiko atetik ateratzeko aginduko diola.

Kontua da, agindutakoa ez, beste atea au- keratu behar duela beti-beti kondenatuak. Antzeko zerbait sentitzen dut neuk ere azken aldian agintari eta jujeen agindu zenbait adi- tzean, mundua hartzen ari den atzerako nora- bideaz ohartzen naizenean. Okerretako bidea aukeratu nahi dut neuk ere, galderen bidea, zalantzen bidea, pertsonena.

Hori bai, ez dakit bide horrek nora eram- an- go nauen, salbatuko nauen, ala urkatuko.

Ekainaren 18etik aurrera **Alaitz Telletxea • Trikitilaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.